

# TxiK!tto

2015eko otsaila

150 zbk.

## Aratosteak 2015



# Taxispeak



## Argitaratzailea

"...eta kitto!" Euskara Elkarte  
Urkizu, 11 - solairuartera. 20600 Eibar  
Tel: 943 206776.

## Erredakzio kontseilua

Ainara Lavado, Maider Aranberri,  
Ana Aizpurua eta Eibarko  
ikastetxeetako ordezkariak.

## Administrazioa

Marisol Uriarte.

## Erredakzioa eta maketazioa

Ainara Lavado, Maider Aranberri, Ainhoa  
Luz eta Ana Aizpurua.

## Argazkiak

...eta kitto! aldizkariko argazki artxiboa.

## Copyright-a

Txikitto!

## Lege-gordailua

SS-1111/96

Eibarko Udalak, Eusko Jaurlaritzak  
eta Gipuzkoako Foru Aldundiak  
diruz lagundutako argitalpena



- Haur batek amari, eskolatik  
etxera joandakoan:
- Ama, bi albiste ditut zuretzat. Bata oso ona da:  
matematikan 10 atera dut.
  - Oso ongi, oso ongi! Eta zein da bigarrena?  
- Ba, lehenengoa gezurra dela.

Ainara Pellitero



- Bittor negarrez dator eskolatik  
eta amak galdetu dio:
- Zer duzu Bittor, horrenbeste negar egiteko?  
- Andereñok zigortu egin nau...
  - Hara! Eta zergatik zigortu zaitu?  
- Bere galderei erantzuteagatik.
  - Gaizki erantzun diozu orduan...
  - Ez, ez. Nik ondo erantzun diot... Sagua bere  
poltsan zeinek sartu duen galdetu du eta  
ni izan naizela erantzun diot.

Ariane



- Irakaslearen eta  
ikaslearen arteko elkarrizketa:
- Zenbat hezur dauzka zure  
gorputzak?
  - 208, jauna - erantzun du ikasleak.
  - Burugogorra! Ez al nizun esan atzo 207  
hezur ditugula?
  - Bai, baina... gaur oliba-hezur bat  
irentsi dut.

Haritz





Aitona hilzorian omen zegoen, eta ohetik begiak ireki, eta hor hasten da berbetan:

- Maria, hemen al zaude?
- Bai, bai, hemen nago, hemen nago.
- Andres, hemen al zaude?
- Bai, hementxe nago aitona, hementxe nago.
- Xabier, hemen zaude?
- Bai, lasai aitona, hemen nago. Hemen gaude denak.
- Denak hemen zaudete?
- Bai, bai, zure ondoan, hemen gaude denak.
- Eta denak hemen bazaudete, zer egiten du pasilloko argiak piztuta?

Haritz



Kartzelara iritsi berria den batek galdetzen dio beste bati:

- Eta zu zergatik zaude hemen?
- Ez didatelako irteten uzten!

- Ama, ama!  
Ikastolan despistatua deitzen didate!
- Aizu, ume, joan zaitez zure etxera!

Neska batek amari:

- Ama badakizu? Nire idazlanak irakaslea zeharo hunkitu du!
- Eta amak:
  - Benetan diozu?
- Bai horixe! Negargarria dela eta pena ematen duela esan dit!

- Andereñok Mikeli:
  - Esaidazu, nola banatuko zenituen hiru patata hamar lagunen artean?
  - Oso erraz! Porea egiten!


Eroetxean zoro batek eraizainari:

- Erloju hori zuzen dabil?
- Bai, oso zuzen!
- Orduan zertarako ekarri dute hona?



# Denborapasak

## Aurkitu desberdintasunak



Maialen Bravo

## Asmakizuna

FRUTA GOZO GOZOA NAIZ, TXIKI TXIKIA ETA GORRIA, PILOTIK BAT HARTU, ETA DENEK IRTEN NAHI

ERANTZUNA: .....

Bader El Ayadi

## Zenbakiak lotuz marrazki polit bat aterako zaizu



Anne Mata

## Labirintoa

Lagundu artzari umeak aurkitzen:



Mossaab Abida

# Lehiaketa




## AURREKO HILEKO IRABAZLEA

Oraingoan ere langile jardun duzue, eta aurreko hileko lehiaketako erantzun asko jaso ditugu. Zozketa egin eta gero, irabazlea

**XABIER BERASATEGI** izan da.

Argazkian duzue saria jasotzen. Zorionak!

## LABIRINTOA



**BIDALI ERANTZUNA MARTXOAK 4 BAINO LEHEN.  
...ETA KITTO! EUSKARA ELKARTEA. Urkizu 11. Eibar.**

Izen-abizena .....


Adina ..... Tel.....

# Denborapasak

## 7 desberdintasunak



Ibai Iriondo




BEHIA  
ANTXOA  
ELTXOA  
GORILA  
LEHOIA  
UNTXIA

ARRANOA  
DORTOKA  
IZURDEA  
OLAGARROA  
AMUARRAINA  
KARRAMARROA

**Maidier Olasolo**

## Aurkitu bidea



**Anas Ziani**

# Zer nolako biharra emakumeena!

Emakumearen Nazioarteko egunaren bezperan, martxoaren 7an, ekitaldi berezia izango da Eibarko Armagintzaren Museoan: **Zer nolako biharra emakumeena!**

Hitzordea zapatuan **arratsaldeko 5etan** izango da eta bertan 8 urtetik gorako edozeinek har dezake parte.

Belaunaldi desberdinen arteko topaketa bezala aurkezten da, ama eta seme-alaba, amona eta biloba, zein izeba eta ilobei zuzenduta. Gazte zein helduentzat, azken finean.

Lehenik eta behin Eibarko emakumeen ofizioen irudiekin ohizko **Memory** jolasean parte hartuko dute. Emakume hauetariko asko historian oso garrantzitsuak izandakoak dira eta helduek ezagutzen dituzte. Irudi bikotea topatzean, ofizio bat egokituko dio eta berari buruz dakiena

partekatu. Helduen jokaera funtsezkoa da gazteenei ezagutza eta bizipen pertsonala transmititzeko.

Ondoren, museoa begirada desberdin batekin bisitatzeko aukera izango dute bertara gerturatutakoek. Gidak areto ezberdinetatik eramango du taldea eta Eibarko **industrian emakumeak** izandako papera azalduko du, udal-bildumak dituen piezen laguntzaz.

## Tailerraren izena:

Zer nolako biharra emakumeena!

**Lekua:** Armagintzaren Museoa

**Eguna:** Martxoak 7

**Ordua:** 17:00

**Kopurua:** 25 lagun

**Hizkuntza:** euskaraz

**Izena eman:** museoan bertan martxoak 7, 16:00etatik 16:30etara



## Zergatik ospatzen dugu martxoaren 8a?

**1908an** New York-eko fabrika batean 146 emakume langile hil zirelako ezagutzen dugu gehienok martxoaren 8a. Protesta-

tzen ari ziren soldata miserableak eta oso lan baldintza txarrak zituztelako eta jaurtiki zizkieten suzko bonbek izugarritzko sutea eragin zuten.

**1909ko** irailaren 27an New York-eko 20.000 langilek, gehienak emakumezkoak, 13 aste iraun zuen greba egin zuten. Sufrimendu latza jasan zuten, gosea, atxiloketak, despidoak..., baina eskariak betetzea lortu zuten.

**1910:** Emakume Sozialisten Nazioarteko Biltzarrak Kopenhagen egin zen eta **Clara Zetkin** komunista alemaniarrek emakumeen eskubideen aldeko eguna aldarrikatu zuen. 17 herritako 100 bat emakume ziren bertan eta proposamena aho batez onartu zuten.

**1911:** Aurreko urteko erabakiaren ondorioz, lehen aldiz ospatu zen **Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna** Alemanian, Austrian, Danimarkan eta Suitzan. Martxoaren 19an egin zen urte hartan eta milioi bat pertsona bildu zituen, emakumeentzako botoa, kargu publikoetara iritsi ahal izateko eskubidea, lanerako eskubidea edo berdintasuna hezkuntzan eskatuz. Astebete geroago, martxoaren 25ean, 140 emakume langile hil ziren New York-eko Triangle fabrikako sutean. Gehienak gazteak ziren, italiar immigranteak eta juduak. Gertakizun latz hura behin eta berriro izango zen gogoan ondorengo urteetan egingo ziren ospakizunetan.

**1977:** Euskal Herrian lehen aldiz ospatu zen Emakume Langilearen Nazioarteko Eguna, Bilbon, hain zuzen ere.



<b>IZENA</b>	Aitor
<b>ABIZENA</b>	Bilbao
<b>OGIBIDEA</b>	Magoa
<b>JAIOTERRIA</b>	Getxo
<b>JAIOTEGUNA</b>	1982ko maiatzaren 23a

**Itsasoa ala mendia?** Itsasoa

**Gozoa ala gazia?** Gazia

**Uda ala negua?** Uda

**Umetan gehien gustatzen zitzaizun ikasgaia? Eta gutxien?**  
Gehien matematika. Gutxien gizarte zientziak.

**Kolore bat?** Berdea

**Kirol bat?** Futbola

**Animaliarik ba al duzu etxean?**  
Orain ez, baina izan ditudanak: arrainak, kanarioak eta hamster bat.

**Txistek kontatu ala entzun?**  
Kontatu.

**Birziklatzen duzu?** Bai.

**Telebistako saio bat?** Sorgintxulo eta Sherlock Holmes.

**Pelikula bat?** Pianista.

**Egun perfektua?** Goizean pintxotan ibili Getxoko portu zaharrean, gero lagunekin bazkaria, bazkaloste luzea, magia ikuskizun batera joan eta ilunabarra hondartzan ikusi.

**Nola dago mundua?** Aldrebes.

**Zerk haserretzen zaitu?** Iruzurrak.

**Zerk poztu?** Jendearen irribarreak nire magia egiterakoan.

**Oporretarako leku bat?** Itsasoa eta eguzkia dituen edozein leku.

**Euskara osasuntsu al dago?**  
Katarroa dauka eta zaindu behar dugu.

**Zer egin euskara bultzatzeko?**  
Lehenengo euskara maite. Gero euskara eskolatik atera eta kalera zabaldu.

**Opariak jaso ala egin?** Egin.

**Miresten duzun mago bat?** Doug Henning.

**Zer desagertaraziko zenuke?**  
Munduko pobrezia.

**Eta zer agerrarazi?** Txokolatezko tarta erraldoi bat.

**Noiztik magia egiten?**  
Txikitatik. Uste dut nire lehen magiak 4-5 urterekin egin nituela.

**Zergatik?** Aititek egiten zuen eta ikaragarri gustatu zitzaidan.

# TOR MAGOA

Magoa jaiotzez eta aurkezlea ETB1eko Sorgintxulo-n. Telebista saio hau egiten hasi aurretik Ingeniaritza ikasi zuen San Mameseko Ingenieritza eskolan eta ingeniari lanetan ibili da enpresa baten, sateliteak eta espaziuntziak egiten. Bitartean, herriz-herriz ibili da magia egiten.



# Aratosteak'15









Kaixo lagunok! Hemen gaude berriro ere **Arrateko Andra Mari** ikastetxeeko ikasle, irakasle eta gurasoak zuek agurtzeko eta gure berriak kontatzeko asmoz.

Aurreko berrietan kontatu genizuen bezala, urtarrilean hainbat ekintza izan genituen eta otsaila ere ekintzaz beteta datorkigu; besteak beste, 4. mailakoak, otsailaren 23an Energiaren tailerra izan zuten eta otsailaren 19an Peio Añorgaren bisita 2. ziklokoek.

Otsailaren 4an Santa Ageda koplak abesten ibili ginen auzoan zehar. Orain Aratosteekin bueltaka gabiltza, aurtengo gaia, ipuinak eta komikiak izan da. Gurasoen laguntza ere izan dugu eskola apaintzeko. Urtero bezala, euskal dantzak ere entsaiatu genituen eta otsailaren 12an kalejiran atera ginen auzoa alaitzeko asmoz. Argazkian 6. mailakoak Itziora egin zuten bisitan.



**San Andres** eskolako 50. Urteurrenarekin jarraituz, urtarrilean aste gastronomikoa ospatu genuen Portaleko sukaldaritza-gelan. Aurora Cid,

Juan Luengo, Enrike Vicente eta Mireia Alonso etorri ziren eta oso menu onak prestatu genituen. Oso ona zegoen dena! Urtarrilaren 31n, gure eskolan ate irekien eguna ospatu genuen. Denetarik egon zen, pailazoak, magoa, puzgarriak, erakusketak, kirol txapelketak, karaokea, eskulanak, txokolatega, palomitatek, makillajea... Arratsaldea zoragarria izan zen!



Hona hemen **Ikastolako** Agenda 21ko batzordea. Talde hau irakasle eta ikaslez osatuta dago. 2go mailatik 6.mailako neska-mutilak hainbat aldiz elkartzen dira gure planeta jasangarria izan dadin ekitaldiak prestatzeko. Horrela gai ezberdinak landu eta bakoitzak bere gelan azaltzen ditu. Besteak beste, zakarren berrerabilera, zakarrontzi ezberdinen esanahia, janari orekatua, kutsadura ingurumenean, e.a.

Aurtengo gaia janariaren inguruan dihoa, elikadura osasungarriagoa bultzatzea nahi dugu-eta. Gaia ondo prestatu ondoren Areto nagusian eskaini zuten Iturburuko guztien aurrean. Horretarako bideo, ipuin, abesti eta argazki ezberdinen bitartez saio atsegina egin zuten.

Poliki-poliki bagoaz gure planeta hobeto zaintzen.



Otsailaren 4tik 6ra **Amaña** auzoa eta ikastetxeeko patioa elurrez estalita eduki dugu, eta nahiz eta hainbat arazo eta oztopo izan, ikasleek elurretan jolastuz disfrutatzeke aukera paregabea izan dute. Ea laister beste elurteren bat datorren!!



Otsailaren 12an, Aratosteak ospatu genituen **Urkizu** Eskolan. Arratsaldean kalejira eta dantzak egin genituen Urkizuko parkean. Otsailaren 18an, Odol Emaileen Elkarteak antolatutako hitzaldia izan zuten Urkizuko 3. zikloko ikasleek. Eta otsailaren 19an, Urkizu Eskolako 4. eta 5. mailako ikasleek, Peio Añorga idazlearen saioa ikusteko aukera izan zuten eskolako liburategian.

# ETXeko artista

## Labirintoa

Etxeko gaztetxoenek erraz egiteko moduko eskulana duzue honakoa. Material gutxi erabiliz, labirinto dibertigarria egingo duzue. Bat baino gehiago egin nahi izanez gero, irudimena erabiliz gero lortuko duzue.

### Materiala:

- Erabiltzen ez duzuen CD kutxa bat.
- Fimoa (laberako plastilina)
- Koloretako argizari-tirak (fimoa bera edo plastikoan pegatzen den beste material bat izan daiteke).
- Artaziak eta koloretako papera.

### Pausoak:

1.- CD kutxa hustu. Argizari-tirekin labirintoaren ibilbidea egin. Lehenengoa egiteko, nahi baduzue, interneten dauden plantillak erabili, baina irudimenarekin nahi duzuen ibilbidea egiteko gai izango zarete.

- 2.- Fimoarekin bolita txikiak egin, labirintoan sartzeko. Beste edozein bolita ere erabil dezakezue.
- 3.- Eta amaitzeko, apaindu zuen labirintoa. Kutxaren azpialdean koloretako papera jar dezakezue politagoa gera dadin.



Ti-ta!

## Giltzak

Giltzekin inoiz gehiago ez nahasteko, horra hor idea: azazkalak margotzeko margoarekin margotu giltz-burua. Sikatu denean, berriz ere margotu. Nahi duzuen moduan apaindu gero: koloretako puntutxoak, lentejuelak, apaingarriak...



# etxeko SUKALDARIA

## Burmuin odoltsua



### OSAGIAK

- ✓ Entsaladilla errusiarra
- ✓ Errefauak (rabanito)
- ✓ Azeituna beltzak
- ✓ Tomate frijitua edo kétchup



### PAUSOAK

- 1.- Entsaladilla jarri platerean.
- 2.- Errefauak zuritu eta moztu argazkian ikusten den moduan. Azeituna zatiak itsasi eta begiak izango balira moduan jarri entsaladillaren gainean.
- 3.- Aho odoltsua egiteko tomatea edo ketchupa jarri.



## Gaztaitxo arrautzaztatua

### OSAGIAK

- ✓ Gaztaitxo kaxa bat
- ✓ Arrautzak
- ✓ Ogi birrindua



### PAUSOAK

- 1.- Gaztaia hotza egotea garrantzitsua da. Ogi birrinduan pasatu aurretik utzi hamar minutu hozkailuan.
- 2.- Gaztaia ogi birrinduan pasatu, irabiatutako arrautzean gero, eta berriz ere ogi birrinduan.
- 3.- Frijitu olio askorekin eta sukaldeko paperaren gainean jarri soberako olio xurgatzeko.
- 4.- Marrubizko marmeladarekin zerbitzatu.



# OTSAILA ETA MARTXOKO agenda

## Otsailak 28

### ZAPATUKO IPUINA

Maialen Zubeldiaren eskutik 18.00etan umeen liburutegian. Pingüino bihurri bat, Printzesa izan nahi zuen neskatoa, Wilbur katuarekin bizi zen sorgina eta gimnasia egiten ez zekien Munstroa. Hainbat pertsonaia, abentura dibertigarriak bizitzeko prest.

## Martxoak 7

### KORRIKAREN BARRUAN MENDI-

**IRTEERA**, eskualdeko historia ezagutzeko, 09:00ean Untzagan elkartu.

1.- Ibilbidea: Karakate-Hirukurutzeta.

2.- Urkiazelain mokadua

Soraluzeko Mendi Taldeak eta Debanaturak lagunduta

## Martxoak 7

### JOLASTERA MUSEORA

Zer nolako biharra emakumeena! Tailerra, 8-99 urtekoentzat. 17.00etan Armagintzaren Museoa. 25 lagunentzat lekua. Izen-ematea: egunean bertan museoan 16.00etatik 16.30etara.

## Martxoan

### GUK IRAKURTZEN DUGU, ETA ZUK?

Lehiaketa

Apirilaren 2an Haur Liburuaren Nazioarteko Eguna dela-eta, liburutegiak lehiaketa jarriko du martxoan. Protagonistak haurrak, euren familia, lagunak, LIBURUAK eta “selfiak” izango dira. Informazio gehiago liburutegian.

### ARIES

Zorionekoa zara. Zure andereñoak huts egingo du lanean eta eguna libre hartuko duzue.

### TAURUS

Ez zara guztiz ondo sentitzen. Gauean gutxi deskantsatzen duzu eta egunean zehar leher eginda zaude. Gripea ote?

### GEMINIS

Zure bihotzeko neska edo mutilla ate joka ari zaizu eta zu ez zara oraindik konturatu. Adi egon, gutxien espero duzunean agertuko delako. Zure eguna 24 da.

### CANCER

Koadrilako lagunak asko maite zaituzte, zuk batzuetan kontrakoa pentsatu arren. Lagun onak dituzu benetan.

### LEO

Etxean egun osoa pasa orde ez al zenuke lagunekin bueltatxo bat eman behar kalean? Etxeko berotasuna ona da baina ez duzu kaleko freskura galdu behar.

### VIRGO

Eguna ederki hasiko duzu. Aprobetxa ezazu zure ideia miresgarriak azaltzeko. Kontzentratu zaitzez zugan, besteen arazoetan murgil ez zaitezen.

### LIBRA

Gehienetan oso pertsona isilkorra zara eta ez duzu berehala zure ideia edo mugimenduen berri ematen, gaurkoan pozoi miresgarria edan duzula ematen du!

### SCORPIUS

Etxean hobekuntzak egiteko eguna da... mozorroak noiz arte izango dituzu bueltaka logelan?

### SAGITARIUS

Larregi jan dozu... eta orain tripakominak. Ez duzu ikasten, beti berdin!

### CAPRICORNIUS

Amonak bisitan juateko esan dizu, aspaldi joan barik... Egin kasu, zaindu maite duzun hori!

### ACUARIUS

Hori bai txukun lan egitea. Segi horrela!

### PISCIS


Zortea izango duzu, lagun. Nahi duzun hori laister lortuko duzu!





### ZEUREA DA ERRUA

Ahizpak ziren Marisaltotxiki eta Brinkoleta urtxintxak. Udan jolasean ibili ziren, baina udazken hotza iristean, denbora gehiago eman behar izan zuten abian. Marisaltotxikik Brinkoleta gaixoari botatzen zion gauza guztien errua.



### SUGEGORRIA

Kok izeneko sugegorri bat zahartu egin zen, sugegorri zaharretan zaharrena baino zaharrago, eta bere bi hortz gaiztoak erori egin zitzaizkion; bata luzea zuen; bestea, motzagoa. Sugegorrien artean inori ez zitzaion halakorik gertatu inoiz. Sugegorriek ez zekiten zer zen hortzak galtzea...




### SIMON IPUINEN MUNDUAN

Zoritzarrekoa sentitzen da Simon, gurasoek ez diote jaramonik egiten, eta eskolakideek ere ez (Maidar kenduta). Horregatik eroriko da egun batez Ipuinen Mundura: han bizi dira Txanogorritxo, Peter Pan, Lamiak, Merlin, Aladino... eta haien artean, ipuin batetik bestera mugituz, bera bezala bizidunen mundutik joandako haur zorigabeak.



### DEMONTRE SALTSA BERDETAN

Ipurterrieta jauna oso berezia da: bere lantegiko langileentzat, ugazaba zaratatsua, eta ilobarentza, aitona zoragarria. Baina ideia xebreak bururatzen zaizkio...



### SAN BRAULIOKO EROA

San Braulio herri txiki bat da eta bertako gora beherak agertzen dira liburuan: jendearen arteko harremanak, herririko apaiza, jauntxoa, eskola, nekazaritza... Amaieran, protagonista umeak dira eta berauek dira gai herririko gertaerak gizabidez aztertzeke.



### NUR ETA ETXE SORGINDUA

Ikasturtea bukatu da eta Nur Larrabetzura itzuli da berriro, udako oporretarako. Lagunekin ibiltzeko eta jolas egiteko garaia da. Bizikleta, patina eta igerilekua, batez ere, dira eguna betetzen diotenak. San Juan bezperan iritsi da, gainera magiazko gauarekin batera: Suak egin eta mozorrotzeko gaua, sorgin-gaua. Nur eta lagunak amamaren etxeko sotoan sartzen dira, mozorrotzeko asmoz, baina etxe sorgindua aipatzen du norbaitek...

# bitxikeriak



Musika-tresna bat jotzeak memoria hobetzen du.



Macropinna arrainak bere garezur gardenaren bitartez ikusten du.



Gure burmuinak gure burua altuagoa, argalagoa eta 7 bider politagoa ikusarazten digu.



Pertsona batek, batezbeste, 7 minutu behar ditu lokartzeko.



Everest-erako bidean 200 hilotz baino gehiago dago.



Begi marroiek urdinek baino konfiantza gehiago ematen dute.



Besarkada bat ematerakoan oxitozina izeneko hormona isurtzen dugu, eta estresa murriztu eta botakagurea eta buruko minari aurre egiten laguntzen digu.

✓ Bozketa ireki baten arabera, munduko banderarik politena Mexikokoa da.



Gizakiaren burmuinak edozein berba ikasiko du, 14 minututan 160 aldiz entzuten badu.



Burmuinaren kirurgia gaixoa esna dagoela egin daiteke, burmuinak ez duelako minik sentitzen.

✓ Zuhaitzen artean ibiltzea oso ona da gure burmuinarentzat.

✓ Kilkerrek aurreko hanketan dituzte belarriak.



✓ 2015ean 2 kometa, 4 eklipse eta 5 meteoror-auri izango ditugu.



## KLASEKO ABENTURAK

**A**ne eta Ibai anai-arrebak dira eta klase berdinean daude. Ez dira geldirik egoten, beti daude alde batetik bestera korriketan eta ez diote kasurik egiten amari. Klasean beti zigortzen dituzte, hau da, nahiko bihurriak dira.

Egun batean, artistikako klasean, irakasleak zigortu zituen. Zigortuta

zeudela Aneri ideia bat bururatu zitzaion: paperezko hegazkin bat egitea, baina benetakoak bezala, motorrarekin hegan egin ahal izateko. Gela guztietako paperak eta kolak lapurtzen hasi ziren eta lanari ekin zioten. Hegazkina bukatuta zegoenean leihotik atera zuten eta bere etxera abiatu ziren, baina lehenengo bueltatxo bat eman zuten munduan zehar. Lehenengo, Amerikara joan ziren itsasoa zeharkatuz, gero Australiatik igaro ziren kanguroak ikusteko eta Pariseko “Torre Eiffel-ean” zeudela:

–Esnatzeko ordua da!– oihukatu zuen amak, eta Ane eta Ibai pozik esnatu ziren klasera joateko gogoz.



**IERAI OVELAR**

Eskatu aitari edo  
amari ipuin hau gaur  
gauean kontatzeko.  
**MEREZI DU...**

# ATORRAK

Mundaka



zu margolari!